



Oñatiko ikastoliaren hasierako umiak

Badakizue honezkero, batian eta bestian sarritan gogoratu doskuelako, aurten Oñatiko ikastoliak berrogeta hamar urte beteten dittuala. Halako ikastetxe bat gizaldi erdira ailegaittia ezta bromia. Izan be, tarte luze horretan, momentu onekin bate-ra, zenbat gorabehera larri ez ete dau pasau? Dana dala, urtiak fan eta urtiak etorri, aurrera doia herriko neskatilla-mutiko askoren mesederako.

Urteurrenaren ospakizun nagusixenak udazken inguruan izango diran arren, hil honen akabera aldera, besteren artian, ikastolako antxiñako ikaslien bazkarixa antolaketakotan dira. Gaurko fotografia honeittan aspalditxoko haurrak agerketan dira, hau da, orduan San Migel izena eukan ikastolan ebiltzen ikasliak. Lehenengotako promoziñotakuak.

Sasue zail hareittan, 1967-1968 ikasturtian eta hurrenguetan, leku desbardiñetan emun bihar izan zittuain eskolak: lehenengo, Kale Zaharreko San Migel kooperatiba gaiñian; taldiak ugarittu ahala, Lizaur kaliaren hasierako etxepe bateko bi gela be eba-li ziran; eta, biharrak eragindda, laister pasau ziran hurrian zan agustiñuen komentura, aurreko eskola bixak baiño ikasleku nasai-xagora, baiña igogaillu bariko hirugarren pisu batian eguena.

Ba, argazki pare honetan agiri diran neskatilla-mutikuak laterandarren seminarixua izandako goixeneko pisu horretan ziharduain ikasten. Kurtsua 1972-1973kua izan leike. Batian, lurrian jarritta eta korruan dagozen umetxuak, bi borobillen bittartez, kontaitten ikasteko ariketia egitten diharduela emuten dau. Guk banaka bat baiño ezagutu eztogunez, zuen esku izten dogu zeregin hori; ia suerte gehixago dakozen.

Beste fotografixako ikasliak nagusitxuaguak dira, zazpi-zortzi urtekuak-edo. Pozik ikusten dittugu ikasgela barruan, euren alaittasuna dantza moduko batian kanporatuaz. Danak ezpadira be, batzuk behintzat ezagunak egin xaku: esate baterako, Ines Maiztegi; Maite Elgero; Garbiñe Garai; Belen Guridi; Joxe Mari Urtzelai; Marijo Anduaga; Jabi Ordorika (?); Patxi Izura; edota Mikel Iturrospe.

J. E.

Fotografixak Euxebi Osak eskuratutatuak dira. Argibidiak, berriz, Euxebi berari eta Garbiñe Garairi zor dostegu. Milla esker!